



**GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA  
EGIAZTATZEKO ARAUZKO TXOSTENA,  
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
2016KO KONTU OROKORRA ONARTZEN  
DUEN FORU ARAU PROIEKTUARENA**

**INFORME PRECEPTIVO DE  
VERIFICACIÓN DE LA EVALUACIÓN DE  
IMPACTO DE GÉNERO RELATIVA AL  
PROYECTO DE NORMA FORAL POR LA  
QUE SE APRUEBA LA CUENTA  
GENERAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO  
DE GIPUZKOA PARA 2016**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egin da txosten hau, 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko asmoz.

Zehazki, txostenaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den 2/2015 Foru Arauko 27 b) artikuluan eta 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenen genero eragina aurrez ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideetan xedatutakoa, eta zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

Se emite el presente informe a solicitud del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa a fin de dar cumplimiento a lo que dispone el artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres.

En concreto, el informe tiene por objeto que el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres verifique la correcta aplicación de lo dispuesto en el artículo 27 b) de la Norma Foral 2/2015 y en las Directrices para la elaboración de Informes de evaluación previa del impacto de género de las disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral el 21 de junio de 2011, y realice propuestas de mejora en tal sentido.



2017ko ekainaren 20an, Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu zion goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena.

Foru arau bat denez, 2/2015 Foru Arauaren 27.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, genero eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa egin behar da. Horretarako, proiektuaren organo sustatzaileak genero eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena eman du, Arauaren 27.2 artikulua aurreikusten dituen terminoetan.

## EGIAZTAPENA

Aurkeztutako genero eraginari buruzko ebaluazio txostenak **modu zuzenean identifikatzen du** esku artean daukagun foru arau proiektuaren **genero pertinentzia**, izan ere azken hartzaileak pertsona fisikoak izan baitaitezke, eta, gainera eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko duten gaitasunean.

Con fecha de 20 de junio de 2017, el Departamento Hacienda y Finanzas solicita al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres el informe de verificación de la evaluación previa de impacto de género sobre el proyecto arriba mencionado.

Se trata de una norma foral por lo que, de conformidad con lo establecido en el artículo 27.1 de la Norma Foral 2/2015, debe ir acompañada de la correspondiente evaluación previa del impacto de género. A tal fin, el órgano promotor del proyecto ha emitido el correspondiente Informe de evaluación previa de impacto de género, en los términos previstos en el artículo 27.2 de dicha Norma.

## VERIFICACIÓN

El informe de evaluación de impacto de género presentado **identifica correctamente la pertinencia al género** del proyecto del norma foral que nos ocupa, ya que el grupo destinatario final pueden ser personas físicas y afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.



Proiektuaren genero pertinentzia zehaztu ondoren, txostenak adierazten du ezinezkoa dela proiektuaren **genero eraginaren balorazioa** egitea; izan ere, Kontu Orokorrak aurrekontuen exekuzioari eta likidazioari buruzko informazioa jasotzen du, egindakoaren berri ematen du, eta zehazten du balorazio hori egokia dela “aurrekontuak onartzen direnean, eta ez horien exekuzioaren berri ematen denean”.

Azkenik, txostenak generoaren ikuspegitik aztertutako programen betetze mailari buruzko datuak ematen ditu eta programa horiek sailkatzen ditu, duten garrantziaren arabera; horrek nabarmen hobetzen du azterketa, eta ondorioztatzen du aztertutako programen balorazioa positiboa dela.

## **ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Orain arte adierazitako guztiaren arabera, eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 27.2.b) artikuluan xedatutakoa betetzeko, egiaztatzen da *Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2016ko Kontu Orokorra onartzen duen Foru Arauaren*

Una vez determinada la pertinencia al género del proyecto, el informe indica la imposibilidad de realizar una **valoración del impacto de género** del proyecto debido a que la Cuenta General recoge información sobre la ejecución y liquidación de los presupuestos, y se limita a dar cuenta sobre lo realizado, y detalla que dicha valoración es pertinente en el momento de “la aprobación de los presupuestos y no al dar cuenta de su ejecución”.

Finalmente, el informe aporta datos sobre el grado de cumplimiento de los programas analizados desde la perspectiva de género y su clasificación según su relevancia, lo cual, mejora notablemente su análisis y concluye que la valoración de los programas analizados es positiva.

## **CONCLUSIÓN Y PROPUESTAS DE MEJORA**

A tenor de todo lo expuesto, y en cumplimiento del artículo 27.2.b) de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se verifica que la no aplicación de lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015 en su totalidad, está correctamente argumentado



proiektua sustatzen duen departamentuak behar bezala arrazoitu duela 2/2015 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa erabat ez aplikatu izana.

Foru arau bat denez, departamentu sustatzaileak genero eraginari buruzko alde z aurreko ebaluazioa egin behar du. Dena dela, arau horrek 2016ko Kontu Orokorra bakarrik onartzen du; era berean, arau hori urte horretako aurrekontuaren exekuzioari eta likidazioari buruzko informazioa ematera eta foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren berri ematera mugatzen da. Hori dela eta, oso kasu berezia da, eta ezin da genero eraginari buruzko alde z aurreko azterketa bat egin, txosten honen xede den foru arauak dagoeneko eginda dauden jarduerak aipatzen baititu. Ondorioz, **aurkeztutako ebaluazio txostena baliagarritzat jotzen da.**

Bestalde, interesgarria da txosten hau aprobetxatzeko egindako ahalegina, 2016ko aurrekontuak ondoren izango duen eragina baloratzeko. Beraz, arau honen kasuan ezin denez ebaluazioa aurretik egin, egokia izango litzateke ebaluazioa ondoren egitea.

por parte del departamento promotor del proyecto de *Norma Foral por la que se aprueba la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2016.*

Se trata de una norma foral y por ello, el departamento promotor está obligado a realizar una evaluación previa de impacto de género. Sin embargo, dicha norma únicamente aprueba la Cuenta General de 2016, limitándose a aportar información sobre la ejecución y liquidación del presupuesto de ese año, así como a dar cuenta de la situación económica del sector público foral. Por ello, se trata de un caso muy particular en el que no es posible un análisis del impacto previo de género, ya que la Norma Foral objeto del presente informe se refiere a actuaciones ya realizadas. Consecuentemente, se **considera válido el informe de evaluación presentado.**

Por otro lado, es interesante el esfuerzo que se hace por aprovechar este informe para valorar el impacto del presupuesto 2016 a posteriori. Precisamente, y dado que la evaluación *ex-ante* no es posible en el caso particular de esta Norma, parecería adecuada realizar una evaluación *ex-post*.




Hala ere, aurkeztutako azterketa ez da nahikoa programen balorazioa positiboa dela ondorioztatzeko generoaren eraginaren ikuspegitik. Diagnostiko sakonago bat egiteko, beharrezkoa izango litzateke txostenean txertatzea aztertutako programen betetze mailari buruzko azalpen memoriaren azterketa bat, betetze mailari buruzko datuak emanaz eta programen generoaren ikuspegitik interpretazioa eginez. Horrela, ondorioak atera litezke aurrekontuaren exekuzioaren genero eraginari buruz eta, behar izanez gero, hobekuntza proposamenak identifikatu litezke 2017ko Kontu Orokorrari begira.

Azkenik, **hizkuntzaren erabilera ez sexistari** dagokionez, testuaren gaztelaniazko bertsioan, ikusten da ahalegin bat egin dela hizkuntza inklusiboa erabiltzeko.

Aun así, el análisis presentado resulta insuficiente para concluir que la valoración de los programas es positiva desde el punto de vista de su impacto de género. Para poder realizar un diagnóstico más completo, sería necesario incorporar en el informe un análisis de las memorias explicativas sobre el grado de cumplimiento de los programas analizados, aportando datos y realizando una interpretación desde la perspectiva de género de los mismos. De esta manera, se podrían extraer conclusiones sobre el impacto de género de la ejecución presupuestaria y, en su caso, podrían identificarse propuestas de mejora para la recogida de información de cara a la Cuenta General de 2017.

Finalmente, en relación con **la utilización no sexista del lenguaje**, en la versión del texto en castellano, se aprecia un esfuerzo por utilizar un lenguaje inclusivo.

Donostian, 2017ko ekainaren 21a



Hiart Balizkueta Florez  
Berdintasuneko teknikaria

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa